



Gogoeta politikoak eta etikoak dituen obra hau emateko, aktore amateurrengana jo du Lipusek. BERRIA

Ibañeta, gaurkotasunez betea

Piarres Larzabalen 'Ibañeta' antzerkia zuzendu du Ander Lipusek, hemezortzi lagunek antzezteko

Eneko Bidegain Baiona

Antzerkia klasiko bihurtu da. Karlomagoren tropak CRSak dira gaur egun, baina gatazka beti hor dagoela nabarmendu dute *Ibañeta* antzerkia emango dutenek. Berrogei urte ditu antzerkiak, eta urte horietan egoera ez dela aldatu uste du Christiane Etzaluz antzerkilariak. Piarres Larzabalen obra gaurkotu dute, eta Ander Lipusek zuzendurik, hemezortzi lagunek emanen dute. Hori aurkeztu zuten atzo, Baionako Mattin Megadendan. Eraikin berean dago Batasunaren egoitza, bigarren solairuan; karrika ingurua poliziek eta he-dabideek hartua zuten. Batasunaren kontrako operazioa zela eta. Antzerkiaren gaia aurkezteko egoera adierazgarria...

ETAk Meliton Manzanak erail zuten antzerki hori Piarres Larzabalek. «Ikusleei ETA ulerrarazi nahi izan zien», gogora ekarri du Christiane Etzaluzek. Etzaluzek 1969an antzezla-na antzeztu zuen, eta aurten ere antzeztuko du. «Berrogei urte geroago, ikusten dugu antzerki hartan aipatzen zen garaipea ez dela gertatu. Larzabalen gogoia,

Ibañetako guduan bezala bukatzea zen, garaipenarekin». Hogei bat urte zituzten antzerki hori eman zutenean, gogoan du Etzaluzek. Orduan, borrokan sartze hutsagatik garaipena lortuko zutela uste zutela dio. «Oraingo gazteek ere, beharbada, berdin pentsatzen dute, gerla eginez garaipena helduko dela. Transmittitu nahi dugun mezua da guda armatuak bere lana egin duela, ez dela beti gauza bera errepikatu behar, zirkloak bukatzen direla».

Berrogei urte horietan gertatu denetik irakaspenak ateratzeko eta horiek kontuan hartzeko proposatu du Etzaluzek. Antzerkiaren testua Larzabalek idatzi zuen bezala utzi dute, garaipenaren ohoratze horren atala «alde dialektikotik» jorratuz, hala ere. Ez da *Eusko gudariak* edo *Irabazi*

dugu kantuen soinuan antzeztuko, Ander Lipus zuzendariaren arabera. Gogoeta bultzatu nahi dute.

Amateurren garrantzia

Antzerkian hitzak toki handia daukala azpimarratu du Lipusek. Pertsonaiak iritzi guztietakoak dira, eta haien «gogoeta etikoak eta politikoak» eskaintzen dituzte. «Gaur egun oraino bizirik diren gogoetak dira, traidoreetatik hasita beste hainbat geruza ideologiko ageri dira. Horregatik, klasiko bihurtu da», dio Lipusek. «Urteak pasatu dira, baina oso gaurkoa da».

Pertsonaia askotan islatzen dira gogoeta horiek, eta hainbeste pertsonaia antzezteko, hemezortzi jokalarik behar zituzten. Eta horrelako obra bat osatzeko auke-

ra bakarra Ipar Euskal Herrian ikusi du Lipusek. «Gaur egungo zirkuitu komertzialean, holako obrak ezin dira egin. Ezin pentsatua da hemezortzi aktore biltzea, are gutxiago, gaia politiko



Erran nahi dugu guda armatuaren zirkloa bukatu dela, ez dela beti gauza bera egin behar»

CHRISTIANE ETZALUZ
Antzerkilaria

«Gaur egungo zirkuitu komertzialean, holako obrak ezin dira egin. Iparraldean, bai»

ANDER LIPUS
Zuzendaria

bada». Ipar Euskal Herrian, «Hegoaldean ez bezala», antzerkiari begirako sentikortasun edo zale-tasun bat badela azaldu du. «Iparraldean antzerkia maite dute, tradizio bat bada, eta tradizio hori apurtzeko gogoeta eta gaitasuna bada». Hori dela eta, «leku bat aurkitu» du Ipar Euskal Herriko antzerki munduan.

EMANALDIK

- **Urriaren 3an eta 4an.** Larzabaleko Piarres Erdozaintzi ikastetxean, 21:30ean.
- **Urriaren 19an.** Sarako Lurberri gelan, 17:00etan.
- **Urriaren 24an.** Anhaizeko gelan, 21:00etan.

Hitz Egin proiektua bultzatu du Haize Berri kultur etxeak, hainbat hitzaldi antolatuz

➔ *Ibañeta* antzerkiaren gaurkotzea bultzatu du Haize Berri kultur etxeak. Hitz Egin izeneko proiektuaren barnean kokatu du emanaldi horren antolaketa, Maixan Merkapide Haize Berriko animatzaileak azaldu duenez. Beste hainbat ekitaldi ere antolatuko dituzte hurrengo hilabeteetan. «*Ibañeta*-tik abiatuz, euskal antzerkia gogoeta tresna izaten ahal dela pentsatu dugu».

Gogoetatzeko, lau hitzaldi gutxienez antolatuko ditu Haize Berriko udaberriari. Iñigo Iruin abokatuak *Egunkaria* auziaz mintzatuko da. Xabier Itzaina unibertsitariak nortasun kolektiboa aipatuko du. Gabi Mouesca preso ohiak bere esperientzia militantea eta presoen eskubideen alde daraman lana izanen ditu aipagai. Jean-Pierre Massias unibertsitari bake prozesuetan adituak ere mintzaldi bat eskainiko du.

Joel Shapiro artistaren lana jarri dute Barakaldoko Lasarre parkean

'Bilbao Ría 2000' eskultura planaren bitartez, Barakaldo eta Bilbo dotoretu nahi dituzte

Efe Barakaldo

Joel Shapiro (New York, 1941) artistaren lana jarri zuten atzo Barakaldon. Brontzeko eskultura bat, 5,6 metroko garaiera duena.

Barakaldoko Lasarre parkean dago kokatua; lehenago industria guinea zen, baina hori guztia bota egin zuten eta bizitoki bihurtu zuten. «Obrak eskala egoki batean egina egon behar du, eta ingurua ongi hautatzea ere beharrezkoa da. Kasu honetan, Barakaldon, kiroldegiairean ondoan dagoen parke batean jartzea pentsatu dugu, oso toki aproposa», esan du Joel Shapiro eskultoreak.

Eskultura, *Bilbao Ría 2000* eskultura planaren parte da. Ez du titulurik, Shapiroren obra gehienek bezala; jende askok giza gorputzaren tankera hartzen dio eskulturari.

Azken urteotan Bilbon eta Barakaldon egiten ari diren berrikuntzez arduratzen da *Bilbao Ría 2000* egitasmoa, eta orain-gorua honetan, inguruak dotoretzeko helburuarekin heldu diote eskulturar jartzeko ideari.

Atzoko inaugurazioan artista bera egon zen. Oso gustura agertu zen bere obretako bat lehenago industria guinea zen toki batean ikustearekin. Europako hainbat herrialdetan, Japonian eta batez ere AEBetan Shapiroren hainbat lan ikus daitezke. «Kalea oso eragile garrantzitsua da lan bat egiteko garaian. Eskultura bat kalera ateratzen denean, bertatik pasatzen den jendearekin harremanetan jartzen da, eta, beraz, oso garrantzitsua da lanaren ezaugarriek inguruaren ezaugarriekin bat egitea».

Bere lanarekin Barakaldo artistikoki eta kulturalki aberasteko nahi duela esan du eskultoreak.

Beste obra bat Barakaldon

Bilbao Ría 2000 planaren barnean, beste obra bat ere jarriko dute Barakaldon, Magdalena Abakanowicz eskultorearen (Polonia, 1930) *Dancing Figures* izenekoak, hain zuzen ere.

Bilbon, bestetik, Abandoibarra hirigintza gune berrian, Anthony Caro artistaren (Londres, 1925) *Explorer's book* lana jarriko dute.